

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### 325/2024 Foru Agindua abenduaren 16koa. Champourcingo Ernestina Poesiaren 35. lehiaketaren deialdia onartzea

Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunen artean daude kultura-etxearen erabiltzaileen kategoria desberdinetara bideratutako kultura- eta hezkuntza-jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta gauzatzea, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuan zehazten denaren arabera.

Horrela, literatura-artearen arloan, 35 "Ernestina de Champourcín Poesiaren Lehiaketa" deitu zen, poesiaren literatura-diziplina sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzitako kalitate bereziko lanak saritzeko, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak, poesia-modalitatean.

Lehiaketa honen helburua literatura-sorkuntza suspertzea da, eta ahots poetiko berriak edo sendotze-prozesuan dauden ahotsak aurkitzea, Champourcingo 27 Ernestinako Belaunaldiko poetaren irudia gogoratuz eta goraiapatuz. Belaunaldi horren lehen urteak Arabako hiriburuari lotuta egon ziren.

Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko sariak emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren (ALHAO, 51. zk., 2022ko maiatzaren 4koa).

Ekimen horri eustea beharrezkotzat jo da, eta nahitaezko txostenak aztertu dira.

Onorioz, niri emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2025ko Champourcingo Ernestina poesia-lehiaketaren deialdia onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. Kandidaturak aurkezteko eredia onestea, foru agindu honen II. eranskinean dagoena.

Hirugarrena. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko sariak emateko oinarri orokor arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera arautzen da (oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren, eta 2022ko maiatzaren 4ko ALHAOn, 51. zenbakian, argitaratu zen), bai eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera ere.

Laugarrena. Foru Agindu honen bidez araututako sariak Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu-aurrekontuaren proiektuko 70104. G/332701/47900704 «Literatura-sarien deialdiak» partidaren kargura ordainduko dira, eta 4.000 euroko gehieneko zenbatekoa ezartzen da guztira. Sariak emateko baldintza izango da haiek finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Bosgarrena. Ebazpenak gehienez ere sei hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. Saria emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie saridunei, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta ALHAOn argitaratuko da.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsioa aurkez dakioko Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 16a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

*Kultura zuzendaria*  
INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

## I. ERANSKINA

### ERNESTINA DE CHAMPOURCÍN POESIAREN LEHIAKETAREN 35. DEIALDIA

#### 1. artikulua. Xedea eta helburua

1. "Ernestina de Champourcín Poesia Lehiaketa"-ren 35. edizioaren helburua da aparteko kalitateko poesia lan original eta argitaratu gabeak saritzea. Lan horiek Euskal Autonomia Erki-degoko edozein hizkuntza ofizialetan idatzita egon daitezke. Horretarako, bi hizkuntza modalitate ezarri dira: euskara eta gaztelania. Lan bakoitza bi modalitate hauetako bakar batean baino ezin da aurkeztu.

2. Lehiaketa honen helburua literatur sorkuntza sustatzea da, bai eta ahots poetiko berriak edo sendotze bidean daudenak aurkitzea ere, eta aldi berean, 27ko belaunaldiko kide izan zen eta bere bizitzako lehen urteetan Gasteizekin lotura handia izan zuen Ernestina de Champourcín gogorarazi eta goraiatzea.

3. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuak onetsi zituen.

#### 2. artikulua. Emateko prozedura

Sariak norgehiagoka bidez emango dira. Sariak emateko, aurkeztutako obrak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, horretarako izendatutako epaimahaia egindako balorazioaren arabera.

#### 3. artikulua. Aurrekontu egozpena eta sariaren zenbatekoa

1. Sari bakarra emango da hizkuntza modalitate bakoitzeko. Saria 2.000 eurokoa izango da modalitate bakoitzerako.

2. 4.000 euroko gehienezko zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2025eko gastu aurrekontuko proiektuko partida honetatik ordainduko da: 70104. G/332701/47900704 "Literatura sarien deialdiak".

#### 4. artikulua. Saria eskuratu nahi dutenen betekizunak

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean 16 urte beteta dituzten pertsona fisikoek, haien nazionalitatea eta bizilekua edozein dela ere.

#### 5. artikulua. Lanen ezaugarriak

Poema sortek originalak eta argitaratu gabeak (ez inprimaturik, ez digitalik) izan behar dute. 500 bertso izan behar dituzte gutxienez eta 700 gehienez, inprenta tipografiaz idatziak (arial 12 edo antzekoa), tarte bikoitzean, eta egileak askatasun osoa izango du estrofei, neurriari eta errimari dagokienez.

Euskararen hizkuntza-modalitatera aurkezten diren lanek euskaraz idatzita egon beharko dute jatorriz.

Gaztelaniaren hizkuntza-modalitatera aurkezten diren lanek gaztelaniaz idatzita egon beharko dute jatorriz.

#### 6. artikulua. Hautagaitzak aurkezteko moduak

1. Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak bide hauetakoren bat erabili beharko dute hautagaitza aurkezteko:

a. Aurkezpen telematikoen bidez. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa esku-ragarri dagoen izapide espezifikoen bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/certamen-de-poesia-ernestina-de-champourcin>.

b. Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behea), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan aurreikusitako gainerako moduetako edozeinetan. Lege horrek ezarritakoarekin bat etorritik, postaz bidalitako hautagaitzak ere onartuko dira. Atal honetan jasotako moduan aurkezten diren eskabideak deialdi honetako II. eranskineko eredura egokitu beharko dira.

2. Hautagaitzekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a. Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuz gero:

Lana, PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.PDF

Lanaren formatu informatikoan ezin da egilearen izena agertu.

b. Aurrez aurre edo posta bidez aurkeztuz gero:

Hautagaitzak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu edo hara bidali (Probintzia plaza 5, behea 01001 Gasteiz), eta "Ernestina de Champourcín poesia lehiaketa" erreferentzia izan behar dute. Honako hauek bidali behar dira:

- Lana euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea), PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.PDF

Lanaren formatu informatikoan ezin da egilearen izena agertu.

- Deialdi honen II. eranskina, behar bezala beteta.

II. eranskin horretan lanaren izenburua eta izengoitia idatzi behar dira, aurkeztutako lana identifikatu ahal izateko.

3. Artikulu honetako aurreko apartatuetan adierazitakoarekin bat ez datozen bidalketak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

#### 7. artikulua. Aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2025eko martxoaren 31ean amaituko da, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua).

**8. artikulua. Beste sari batzuekiko bateraezintasuna**

- Ezin dira lehiaketa honetara aurkeztu aurretik beste lehiaketa edo sariketa batean saria jaso duten lanak.
- Beste deialdi batekin batera aurkezten den lanak saria jasotzen badu, egileak berehala jakinarazi beharko du, eta bere obra deialdi honetatik kanpo geratuko da.
- Ezin izango dute parte hartu aurreko bost edizioetatik edozeinetan modalitate berean saria lortu dutenek.

**9. artikulua. Hautagaitzak baloratzeko irizpideak**

- Sariak ematean, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dira, aurkeztutako hautagaitzak alderatuz.
- Sariak emateko, aurkeztutako obrak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

LANAREN SORMENA ETA ORIGINALTASUNA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 4 PUNTU)
Oso handia	4 puntu
Handia	3 puntu
Ertaina	2 puntu
Txikia	puntu 1

HIZKUNTZAREN ABERASTASUNA, ERRITMOA ETA GARAPENAREN KOHERENTZIA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	puntu 1
Txikia	0 puntu

ERABILITAKO BALIABIDE ESTILISTIKOAK	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso nabarmenak	3 puntu
Nabarmenak	2 puntu
Ez oso nabarmenak	puntu 1
Maila baxukoak	0 puntu

**10. artikulua. Epaimahaia**

- Gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideen arabera hautatutako epaimahai kalifikatzaileak deialdira aurkeztutako lan anonimoak aztertuko ditu, eta horien balorazioa zehaztuko duen txostena egingo du, deialdi honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren ezarritakoa betez, sariak emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izan beharko du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza izan beharko dute kideek. Lege horren arabera, lau kidetik gorako epaimahaie-tan edo antzeko organoetan ordezkari-tza orekatua dagoela joko da sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkari-tza badu, eta gainerakoetan, berriz, bi sexuak ordezkari-tza badaude.
- Epaimahaia osatzen duten pertsonen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute eta honako hauek adierazi: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio arrazoien eraginpean, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdian ezarritako irizpideen arabera eskabideak baloratzear bestelako helburu baterako, eta txostena egin ondoren deialdiko dokumentazio guztia prozeduraren instrukzio organoari itzuliko diotela. Epaimahaikideen

izendapenak Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesdunek errekusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, legez ezarritako egoera eta baldintzetan.

4. Epaimahaiari obra anonimizatuak bakarrik emango zaizkio. Egileen datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean gordeko dira, eta epaimahaiak ezingo ditu eskuratu.

5. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

6. Berdinketa gertatuz gero, saria pertsona gazteenari emango zaio. Oraindik ere berdinketa izanez gero, saria emakumezko hautagaiari emango zaio.

7. Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

8. Saritu ez diren lanak ez dira itzuliko, eta hogeita hamar eguneko epean suntsituko dira, epaimahaiak epaia eman eta hurrengo egunetik aurrera.

#### **11. artikulua. Prozeduraren izapideak eta ebazpena**

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Etxeko Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Deialdian sortzen edo planteatzen diren gai guztiak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarena da, eta eskumen eksklusiboa da, gainera.

3. Epaimahaiak deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako hautagaitzak, eta txosten bat emango du bere erabakia zehazteko. Epaimahaiak instrukzio organoari igorriko dio txostena. Organo horrek behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, epaimahaiaren balorazioaren arabera, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

4. Kultura eta Kirol Saileko titularrak dagokion ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

5. Saria emateko ebazpena saridunei jakinaraziko zaie banan-banan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikulua xedatutakoari jarraituz, eta ALHAOn argitaratuko da.

#### **12. artikulua. Saria emateko eratorritako betebeharrak eta konpromisoak**

Deialdi honetan ezarritako saria lortzen dutenek konfidentziasuna gorde beharko dute saria emateari buruz, harik eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak horren berri ematea erabakitzen duen arte.

#### **13. artikulua. Argitaratzeko eskubidea**

1. Arabako Foru Aldundiak saritutako lanak argitaratu ahal izango ditu, bakarrik edo ospe handiko argitaletxe batekin batera, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean; hala eginez gero, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik sariaz lortutakoaz gainera.

2. Irabazleek lehiaketara aurkeztutako lanen ustiapen eskubideak eksklusiban lagako dituzte, zazpi urterako, mundu osoan argitaratzeko, hautagaitza zein hizkuntza modalitatetan aurkeztu den (euskara edo gaztelania), hizkuntza horretan.

3. Arabako Foru Aldundiak gordailu digital batean sartzea baloratuko du, eta, horretarako, edizio digitalerako eskubidea gordeko du beretzat, mundu osoan, denbora mugagabean zabaltzeko, hautagaitza zein hizkuntza modalitatetan aurkeztu den (euskara edo gaztelania), hizkuntza horretan.

4. Egileek beren kabuz argitaratu nahi badituzte beren lanak, berariazko baimena eskatu beharko diote Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, eta betiere lana saritua izan dela aipatu beharko dute argitalpenean.

**14. artikulua. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa jarriko da ikusgai: <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>Literatura sariak</b> <b>Premios literarios</b> <b>CHAMPOURCÍN</b> <b>II. ERANSKINA • ANEXO II</b>	<b>2025</b>
--	--	-------------

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

\* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

**LITERATURA LEHIAKETA ■ CONCURSO LITERARIO****Hizkuntza ■ Idioma \***

Ernestina de Champourcín poesia-lehiaketa / Certamen de poesía Ernestina de Champourcín

Aukeratzea / Seleccionar

**Idazlanaren izenburua ■ Título de la obra \*****Ezizena ■ Seudónimo \*****DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES**

<b>Izena ■ Nombre *</b>		
<b>Lehen deitura ■ Primer apellido *</b>		<b>Bigarren deitura ■ Segundo apellido</b>
<b>Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo</b>		<b>Identifikazio zk. ■ N.º identificativo *</b>
Aukeratzea / Seleccionar		
<b>Sexua/generoa ■ Sexo/género</b>	<b>Adina ■ Edad</b>	<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *</b>
Aukeratzea / Seleccionar		
<b>Posta helbidea ■ Dirección postal *</b>		
<input type="text"/>		
<b>Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *</b>		<b>Beste telefono bat ■ Otro teléfono</b>
<input type="text"/>		<input type="text"/>

**ZINPEKO DEKLARAZIOA:**

- Honen bidez, adierazten dut goian adierazitako literatura lehiaketara

izenordearekin aurkeztutako

izeneko lana originala eta argitaragabea dela, eta ez duela saririk jaso beste ezin lehiaketa edo sariketatan, aurkezpen egunera bitartean.

- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut.

**DECLARACIÓN JURADA:**

- Por la presente, declaro que la obra

presentada al concurso literario arriba indicado bajo el seudónimo


es original e inédita y no ha sido premiada, hasta la fecha de presentación, en ningún otro certamen o concurso.

- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.

<b>Tokia ■ Lugar</b>
<input type="text"/>
<b>Data ■ Fecha</b>
<input type="text"/>

HE\_24/067

Orria ■ Hoja 1/2

**DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO ARGIBIDEA**

Jakinarazten dizugu zuk emandako datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "Kultura Etxeko jarduerak" deituriko tratamenduetan erantsiko direla, liburutegiko zerbitzuen eta liburutegi-kudeaketaren jarraipena eta kontrola egin daitezun, eta kultura-jarduerak burutu eta sustatzeko. Datu horien tratamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudian eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa legean ezarritakoaren arabera egingo da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, lege ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOK aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara [www.araba.eus](http://www.araba.eus) atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz - Araba).

Argibide gehiago:  
<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

**INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS**

Le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar a los tratamientos denominados "Actividades Casa de Cultura", con la finalidad de realizar el seguimiento y control de los servicios de la biblioteca y de la gestión bibliotecaria, así como para la realización y promoción de actividades culturales. El tratamiento de estos datos se realizará de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en [www.araba.eus](http://www.araba.eus), o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Para más información:  
<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>